

# Nuestros socios / Gure bazkideak

avs euskadi

AVS Euskadi tiene como objetivo contribuir, desde el sector de Promotores Públicos de Vivienda y Suelo, a que los ciudadanos y ciudadanas de nuestra Comunidad Autónoma puedan acceder a una vivienda digna, adecuada y sostenible.

Desde su constitución, en febrero de 2006, AVS Euskadi vela por los intereses de los promotores públicos de vivienda y suelo en nuestra Comunidad Autónoma. Para ello, desarrolla distintas actividades en la línea de la formación e intercambio de buenas prácticas y experiencias en materias como la gestión del alquiler social o el agente urbanizador.

En 2011 AVS Euskadi sumó dos nuevos socios, con la incorporación de Bidebi Basauri S.L y de Surbisa, Sociedad urbanística de Rehabilitación de Bilbao. En total, nuestra asociación suma ya diez socios: Visesa, Alokabide, Orubide, Donostiako Etxegintza, Ensanche 21, Irunbi, Viviendas Municipales de Bilbao, Sestao Berri, Surbisa y Bidebi S.L. Todos ellos realizan una importante labor en la promoción de vivienda y suelo, con una orientación cada vez más dirigida hacia la promoción del alquiler protegido.

En el año 2011, los miembros de AVS Euskadi iniciaron 2.132 viviendas de promoción pública y terminaron 4.220. De éstas, 1.161 se destinaron a alquiler. Además, se realizaron 2.743 actuaciones de Rehabilitación y se gestionó un parque de 14.150 viviendas en régimen de arrendamiento

Etxebizitzen eta lurzoruaren sustatzaile publikoen sektoretik, Euskadiko AVSk gure erkidegoko herritar guztiei eskaini nahi die etxebizitza duina, egokia eta iraunkorra eskuratzeko aukera.

2006ko otsailean eratu zenetik, Euskadiko AVSk etxebizitzen eta lurzoruaren sustatzaile publikoen interesak babesten ditu gure autonomia-erkidegoan. Horretarako, zenbait jarduera garatzen ditu prestakuntzaren arloan, eta jarduera egokiak zein esperientziak trukatzen ditu alokairu sozialaren kudeaketaren edo urbanizazio-eragilearen esparruan.

2011. urtetik, Euskadiko AVSk beste bi bazkide ditu, Bidebi Basauri S.L. eta Surbisa, Bilboko Berregokipenerako Hirigintza Elkartea, sartu zirelako. Guztira, beraz, gure elkarteak hamar bazkide ditu gaur egun: Visesa, Alokabide, Orubide, Donostiako Etxegintza, Ensanche 21, Irunbi, Bilboko Udal Etxebizitzak, Sestao Berri, Surbisa eta Bidebi S.L. Guzti-guztiek lan handia egiten dute etxebizitzen eta lurzoruaren sustapenean, eta gero eta sarriagotan sustatzen dute alokairu babestua.

2011. urtean, Euskadiko AVSko kideak sustapen publikoko 2.132 etxebizitza eraikitzen hasi ziren, eta 4.220 amaitu zituzten. Euretatik, 1.161 alokairurako dira. Horrez gain, 2.743 zaharberrikuntza-jarduketa egin zituzten, eta alokairu-araubidepeko 14.150 etxebizitzako parkea kudeatu zuten.

alokabide

ALOKABIDE es la sociedad encargada de gestionar el parque de viviendas sociales en alquiler, procedentes de las promociones de Visesa y de las administraciones públicas y promotores privados. Se trata de una empresa joven, pero ya experta. Actualmente esta sociedad del Gobierno Vasco gestiona cerca de 8.000 viviendas en alquiler protegido y en los próximos años será todo el parque de Euskadi. Su permite agilizar la gestión de los alquileres y facilitar a las personas todos los trámites relacionados con sus viviendas, a través de un trato personal y cercano.

ALOKABIDE sozietateak alokairuko etxebizitza sozialen parkea kudeatzen du, eta etxebizitza horiek Visesako, administrazio publikoetako eta sustatzaile pribatuetako sustapenetakoak dira. Empresa gaztea bezain aditua da. Gaur egun, Eusko Jaurlaritzako sozietate honek 8.000 inguru etxebizitza kudeatzen ditu babestutako alokairupean, eta, hurrengo urteetan, Euskadiko parke osoa izango da. Horri esker, alokairuen kudeaketa arinagoa izango da, eta pertsona guztiek errazago egin ahal izango dituzte etxebizitzekin lotutako izapideak, banan-banako tratu hurbilaren bitartez.

www.alokabide.com
alokabide@alokabide.com
T. 945 000 565

BIDEBI BASAURI, S.L., es una sociedad municipal del Ayuntamiento de Basauri, de capital íntegramente público, especializada en el desarrollo integral y la ejecución del planeamiento urbanístico. La sociedad tiene entre sus objetivos la gestión y ejecución de las operaciones urbanísticas previstas por el Plan General de Ordenación Urbana, Planes Parciales y, en general, la gestión y ejecución de todos aquellos planes, programas y acciones que el Ayuntamiento o los organismos y entidades de él dependientes le encomienden en desarrollo de su política urbanística; busca también la promoción, adquisición, construcción y gestión, en cualquier régimen de protección pública, libre o a precio limitado, de edificios, viviendas y cualquier otro tipo de alojamientos, locales y aparcamientos en suelos adquiridos por cualquier título. Bidebi se encarga, además del impulso del arrendamiento y de la rehabilitación del patrimonio edificado.

BIDEBI BASAURI, S.L. Basauriko Udaleko sozietatea da, bere kapital guztia publikoa da eta garapen integralean nahiz hirigintzako plangintzaren betearazpenean da aditua. Besteak beste, honako hauexek dira sozietatearen helburuak: Hiri Antolamendurako Plan Nagusian eta plan partzialetan aurreikusitako hirigintza-eragiketak kudeatzea eta betearaztea eta, oro har, bertako hirigintza-politika garatzeko asmoz, udalak edo haren menpeko erakunde eta organismo guztiek eskatzen dizkioten plan, programa eta ekintza guztiak kudeatzea eta betearaztea. Era berean, babes publikoko edozein araubidetan, araubide irekian edo prezio mugatuan ere sustatu, erosi, eraiki eta kudeatu egiten ditu edozein tituluren bidez erositako lurzoruetako aparkalekuak, lokalak, beste edozein eratako bizitegiak, etxebizitzak eta eraikinak. Bidebi sozietateak, gainera, eraikitako ondarearen errentamendua eta zaharberrikuntza ere bultzatzen ditu.

http://bidebi.basauri.net
info.bidebi@basauri.net
T. 946 073 021

DONOSTIAKO ETXEGINTZA

La entidad pública municipal Donostiako Etxegintza se encarga de la promoción y gestión de viviendas y garajes en alquiler; de la promoción de apartamentos para jóvenes y personas mayores autónomas; de un programa de puesta en alquiler de vivienda vacía y del sorteo de viviendas de promociones privadas sobre suelos municipales en concesión. También gestiona las ayudas a la rehabilitación de edificios y viviendas en San Sebastián, tanto para comunidades como para particulares.

DONOSTIAKO ETXEGINTZA

Donostiako Etxegintza udal-erakunde publikoak alokairuko etxebizitzak zein garajeak sustatu eta kudeatu egiten ditu, eta gazte zein adineko autonomoentzako apartamentuak sustatzen ditu. Era berean, etxebizitza hutsak alokatzeko eta emakidapeko udal-lurzoruetan egindako sustapen pribatuetako etxebizitzak zozketatzeko programa ere badauka abian. Donostiako eraikin eta etxebizitzen zaharberrikuntzarako komunitate zein jabedun pribatuei zuzendutako laguntzak ere kudeatzen ditu.

www.donostia.org
juanm_artola@donostia.org
T. 943 481 000

ENSANCHE 21 es la sociedad urbanística municipal del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, creada para promover y gestionar la expansión de la ciudad en el siglo XXI. Tiene como objetivo administrar el patrimonio municipal de suelo, incluido el planeamiento, la gestión urbanística y la realización de las obras que sean precisas. Además, Ensanche 21 colabora con el Ayuntamiento y con otras administraciones e iniciativas privadas en materia urbanística, de ordenación territorial y medioambiental.

ENSANCHE 21 Vitoria-Gasteizko Udaleko hirigintza-sozietatea da, eta hiria XXI. mendean hedatzeko prozesua sustatu eta kudeatu egiten du. Udalaren lurzoru-ondarea, plangintza eta hirigintza-kudeaketa administratzen ditu, eta beharrezkoak diren obrak garatzen ditu. Horrez gain, Ensanche 21 sozietateak udalarekin, beste administrazio batzuekin eta ekimen pribatuekin lan egiten du hirigintzan, lurraldearen antolamenduan eta ingurumenaren arloan.

www.e21z.es
e21z@e21z.es
T. 945 162 600

irunvi

IRUNVI nace para impulsar la vivienda pública en Irún. Su estructura le permite agilizar al máximo sus actuaciones, que además de desarrollar la gestión urbanística y la negociación de los suelos necesarios, también promueve la construcción de las viviendas, tanto en la modalidad de compra, como en la de alquiler. IRUNVI también promueve apartamentos para personas mayores autónomas, aparcamientos y la rehabilitación del casco antiguo de Irún.

IRUNVI sozietateak etxebizitza publikoak bultzatzen ditu Irunen. Bere egiturari esker, ahalik eta gehien arintzen ditu jarduketak. Halaber, hirigintza-kudeaketa garatzen du, beharrezkoak diren lurzoruak negoziatzen ditu eta erosteko zein alokatzeko etxebizitzen eraikuntza ere sustatzen du. Bestetik, adineko autonomoentzako apartamentuak, aparkalekuak eta Irungo Alde Zaharraren zaharberrikuntza ere sustatzen ditu IRUNVIk.

www.irun.org/irunvi
irunvi@irun.org
T. 943 634 243

Sociedad de Gestión Urbanística ERETZA, S.A.

BARAKALDOKO UDAL GORENA Herri-Baltzua
Sociedad Pública del ILUSTRE AYUNTAMIENTO DE BARAKALDO

ERETZA es la sociedad de Gestión Urbanística del Ayuntamiento de Barakaldo creada para la transformación del paisaje y remodelación del municipio. Sus objetivos principales son la promoción de Vivienda de Protección Local (VPL) en compra y alquiler, y la mejora y conservación de los núcleos urbanos degradados. A tal fin, su actividad se centra en la promoción de la programación y preparación del suelo para el desarrollo del Planeamiento Urbanístico Municipal, la elaboración de planes y proyectos urbanísticos y el asesoramiento integral en materia de rehabilitación.

ERETZA Barakaldoko Udaleko Hirigintza Kudeatzeko Sozietatea da, eta udalerriko paisaia eraldatzea eta hiria bera biziberritzea dauka xede. Honako hauexek dira bere helburu nagusiak: erosteko eta alokatzeko tokibabeseko etxebizitzak (TBE) sustatzea eta hondatutako hiriguneak hobetzea eta artatzea. Horretarako, lurzoruaren programazioa zein prestaketa bultzatzen ditu Udaleko Hirigintza Plangintzaren garapenari begira, hirigintzako planak nahiz proiektuak egiten ditu eta zaharberrikuntzarako aholkularitza integrala eskaintzen du.

www.eretza.com
eretza@eretza.com
T. 944 045 225

sestaoBERRI 2010

visesa

SESTAO BERRI 2010 es una sociedad pública, participada al 50% por el Departamento de Vivienda, Obras Públicas y Transportes del Gobierno Vasco, y al 50% por el Ayuntamiento de Sestao. Tiene como finalidad la regeneración sociourbanística y la intervención en programas de rehabilitación, realojos y gestión del alquiler en Sestao. La sociedad desarrolla en la actualidad simultáneamente todas estas actividades con el objetivo de alcanzar la revitalización urbana y social de los barrios de Txabarri, Urbinaga, Simondrogas, Rivas y Los Baños.

SESTAO BERRI 2010 partaidetzapeko sozietate publikoa denez, %50 Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza, Herrilan eta Garraio Sailarena da; eta beste %50, Sestaoko Udalarena. Gizartea eta hirigintza biziberritzea du helburu, eta Sestaoko zaharberrikuntzarako, birkokapenetarako eta alokairu-kudeaketarako programetan ere esku hartzen du. Gaur egun, gizarteak jarduera horiek guztiak garatzen ditu aldi berean, Txabarri, Urbinaga, Simondrogas, Rivas eta Baños auzoetako hirigintza eta gizartea biziberritzeko asmoz.

http://sestaoberri2010.com
info@sestaoberri2010.com
T. 944 064 460

VISESA es la sociedad promotora pública del Gobierno Vasco. Cuenta con la participación de BBK, Vital Kutxa y Caja Laboral en su accionariado. Promueve vivienda nueva de protección oficial, de alquiler, tasada y alojamientos dotacionales. Esta entidad, que promuve viviendas de calidad a unos precios y condiciones de financiación asequibles, tiene capacidad para controlar toda la cadena de la vivienda: desde la gestión del suelo hasta la entrega. Visesa ofrece un servicio integral, y lidera la incorporación de la innovación al sector de la edificación en la CAPV.

VISESA Eusko Jaurlaritzako sustapen-sozietate publikoa da, eta BBK-k, Vital Kutxak zein Euskadiko Kutxak partaidetza daukate bertako akzioetan. Honako arlo hauetako etxebizitzak sustatzen ditu: babes ofizialekoak, alokairukoak, tasatuak eta zuzkidurakoak. Erakundeak kalitateko etxebizitzak sustatzen ditu prezio eta finantziazio-baldintza eskuragarrietan, eta etxebizitzen kate osoa kontrolatzeko ahalmena dauka: lurzoruaren kudeaketatik hasi eta etxea eman arte. Visesak, hain zuzen ere, zerbitzu integrala eskaintzen du, eta berrikuntzak ezartzen ditu EAEko eraikuntzaren sektorean.

www.bilbao.net/cs/Satellite/Surbisa/Home/es/100390504/Home
surbisa@surb.bilbao.net
T. 944 159 955

Bilbao SURBISA

SURBISA (Bilboko Berregokipenerako Hirigintza Elkartea–Sociedad Urbanística de Rehabilitación de Bilbao) es una sociedad municipal, constituida el 16 de enero de 1985, cuyo objeto social inicial fue desarrollar las actividades de rehabilitación urbanística en el área del Casco Viejo de Bilbao, con la delimitación contenida en el Plan Especial de Rehabilitación de dicha área. En 1994, se amplió el ámbito de intervención a Bilbao La Vieja; y en 2002, al Barrio de Ferroviarios. En 2005, su ámbito de actuación se extendió a toda la ciudad, si bien con las zonas que decida el Pleno Municipal.

Desde su creación, Surbisa proyecta y ejecuta las obras de rehabilitación pública de equipamientos, espacios libres, urbanizaciones, etc... contenidas en los planes especiales de rehabilitación. También ha fomentado la rehabilitación privada, con 20.000 actuaciones de rehabilitación de viviendas y una inversión de casi 150 millones de euros.

En la actualidad, tras realizar un estudio de localización de ámbitos de rehabilitación preferente, Surbisa prevé ampliar sus zonas de intervención a los barrios de todos los Distritos de Bilbao, si bien se iniciará por los barrios más necesitados desde el punto de vista técnico, social y económico.

SURBISA (Bilboko Berregokipenerako Hirigintza Elkartea) udal-sozietatea da, eta 1985eko urtarrilaren 16an eratu zen. Hasieran, Bilboko Alde Zaharreko hirigintza zaharberritzeko jarduerak garatzea izan zuen helburu, eta inguru horretako Zaharberrikuntza Plan Berezian zehaztutako muga zeukan. 1994an, ordea, jarduketa-eremua Bilbo Zaharrera hedatu zen; eta, 2002an, Trenbideko Langileen auzora. 2005ean, ostera, bere jarduketa-eremua hiri osora hedatu zen, udalbatzak erabakitako eremuak kontuan hartuta.

Sortuzenetik, Surbisak ekipamenduak, eremu zabalak, urbanizazioak... zaharberritzeko obren proiektuak egin eta betearazi egiten ditu, zaharberrikuntzarako plan berezietan xedatutakoaren arabera. Era berean, zaharberrikuntza pribatua ere sustatu duenez, etxebizitzak zaharberritzeko 20.000 jarduketa garatu ditu, eta ia-ia 150 milioi euroko inbertsioa egin du.

Gaur egun, lehentasunezko zaharberrikuntza-eremuak lekuratu ondoren, Surbisak Bilboko barruti guztietako auzoetara zabalduko ditu bere jarduketa-eremuak. Dena dela, ikuspegi tekniko, sozial eta ekonomikotik egoera txarragoan dauden auzoetan lan egiten hasiko da.

www.visesa.com
visesa@visesa.com
T. 945 214 136

www.bilbao.net/viviendas
viviendas@vvmm.bilbao.net
T. 944 132 401

BilbaoViviendas
Etxebizitzak

VIVIENDAS MUNICIPALES es un instrumento activo para el desarrollo de la política de promoción de vivienda protegida por parte del Ayuntamiento de Bilbao. Su objetivo es facilitar, en alquiler preferentemente, una vivienda en condiciones dignas a todas las personas de Bilbao que lo necesiten. Con este fin, Viviendas Municipales interviene en el mercado del suelo y en el inmobiliario para promover y obtener viviendas.

Las viviendas protegidas que integran el parque inmobiliario de Viviendas Municipales están destinadas a los colectivos que tienen mayores dificultades para acceder a una vivienda en el mercado libre, debido a su situación social o económica. Dentro de este colectivo, Viviendas Municipales presta una atención especial a la población joven que busca su primera vivienda.

Viviendas Municipales de Bilbao se encarga de la adjudicación de viviendas en alquiler a las personas empadronadas en Bilbao e inscritas en el Registro de Solicitantes de Vivienda de la Comunidad Autónoma del País Vasco. También, desarrolla programas de intervención socio-comunitaria, carencia sobrevenida de vivienda, realojos y cambios de vivienda arrendada. La sociedad municipal promociona y construye nuevas viviendas, compra pisos ya construidos y firma acuerdos de adquisición.

Además, Viviendas Municipales se encarga de la administración y gestión en alquiler de las viviendas y locales que integran el parque inmobiliario; mantenimiento y rehabilitación del mismo y, en su caso, venta para reinvertir los ingresos obtenidos en la promoción de nuevo parque de vivienda protegida.

UDAL ETXEBIZITZAK tresna aktiboa da, eta Bilboko Udalak babestutako etxebizitzen sustapenerako politika garatzea dauka helburu. Batez ere alokairukoak diren etxebizitza duinak eskaintzen dizkie premia duten bilbotar guztiei. Horretarako, Udal Etxebizitzak sozietateak lurzoruaren eta higiezinen merkatuan esku hartzen du, etxebizitzak sustatzeko eta lortzeko.

Udal Etxebizitzak sozietateko higiezinen parkeko etxebizitza babestuak euren egoera ekonomiko edo sozialaren ondorioz merkatu askeko etxebizitzak eskuratzeko zailtasun handienak dituzten taldeei eskaintzen zaizkie. Talde horren barruan, Udal Etxebizitzak sozietateak atentzio berezia eskaintzen die lehenengo etxebizitzaren bila dabiltzan gazteei.

Bilboko Udal Etxebizitzak sozietateak alokairuko etxebizitzak esleitzen dizkie Bilbon erroldatuta eta Euskadiko Autonomia Erkidegoko Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroan inskribatuta dauden biztanleei. Horrez gain, gizartean zein erkidegoan esku hartzeko programak ere garatzen ditu, baita honako esparru hauetan ere: etxebizitzen urritasuna, birkokapenak eta alokatutako etxebizitzen aldaketa. Udal-sozietateak etxebizitza berriak sustatu eta eraiki egiten ditu, eraikita dauden etxebizitzak erosten ditu eta erosketa-hitzarmenak sinatzen ditu.

Gainera, Udal Etxebizitzak sozietateak higiezinen parkeko etxebizitzak eta lokalak administratu eta kudeatu egiten ditu alokairupean. Bestetik, parkea bera ere artatu eta zaharberritu egiten du. Era berean, hala badagokio, parke hori saldu eta lortutako dirusarrerak berriro inbertitzen ditu etxebizitza babestuen parke berria sustatzeko.

www.visesa.com
visesa@visesa.com
T. 945 214 136

www.bilbao.net/viviendas
viviendas@vvmm.bilbao.net
T. 944 132 401

avs euskadi

C/ Portal de Gamarra, 1A. 2º
01013 Vitoria-Gasteiz
T. 945 21 40 50
945 06 84 40

www.avseuskadi.org

avseuskadi@avseuskadi.org